

KONTROL MOZIOA

PUNTU KRITIKOEN MAPAREKIKO PARTE HARTZEA ETA KOORDINAZIOA DIRELA ETA

Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017eko apirilaren 10ean Pertsonen Zerbitzu Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Emakumeentzako hiri seguru bat eraikitzeko asmoz, puntu kritikoak izan daitezkeen guneak identifikatzen eta eraldatzen ditu Udalak, duela lau urtetik, hiriko mugimendu feminista eta auzo elkarteekin batera.

Martxoaren 14an, Puntu Kritikoaren Maparen azken parte hartze saioa egin zen. Deialdia auzo elkarteei eta emakume elkarteei emailez eta telefonoz zabaldu zitzairen arren, parte hartzea eskasa izan zen eta parte hartzaileak kexu eta kezkatuta agertu ziren horregatik.

Udalaren baliabideekin, herritarrekin batera genero indarkeriari aurre egiteko egitasmoak sustatu eta sortzeari dagokion koordinazioa eta parte hartzea indartu behar dira. Lehenasunezko gaia delako. Udal Gobernuan ez dago halako jarrerarik, eta zinegotzi-ordezkariak ez zuen taxuzko erantzunik eman batzordeetan gai honi buruz.

Honegatik guztiarengatik, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Hiriko Puntu Kritikoaren Maparen lanketa lehenasunezko ardura gisa har dezala, gobernuko kideen inplikazioa bermatuz eta departamentu arteko lan taldeak eratu zireneko lan dinamikan aurrerapausoak ematen jarrai dezan.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari berma ditzala herritarrekin Hiriko Puntu Kritikoen Mapa modu parte hartzailean lantzeko beharrezkoak diren lan dinamikak, herritarren parte hartzea indartuz eta sustatuz.

Donostian, 2017ko apirilaren 12an

Naiara Sampedro Perez
EHBilduko Zinegotzia